

2024an EAEko dantzaren programazioan eta sorkuntzan emakumeek eta gizonek izan duten presentziaren eta parte-hartzearen azterketa



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Aurkibidea

Aurkibidea	2
Aurkezpena	5
1. Metodologia	6
2. Programazioaren azterketa	9
2.1. Interpretazioaren azterketa	10
2.1.1. Interpretariak	11
2.1.2. Dantza-taldeen osaera	12
2.1.3. Prezioa eta doakotasun-datuak.....	13
2.1.4. Asteko eguna	15
2.1.5. Ordutegia.....	16
2.1.6. Lurralde Historikoa	17
2.1.7. Barneko/kanpoko eremua.....	18
2.1.8. Eremuaren edukiera	19
2.1.9. Dantza-generoa	20
2.1.10. Publiko mota	21
2.1.11. Dantza-interpretazioaren jatorria	22
2.2. Koreografiaren azterketa	23
2.2.1. Koreografia	24

2.2.2.	Koreografiaren osaera	25
2.2.3.	Prezioa eta doakotasun-datuak.....	26
2.2.4.	Asteko eguna	28
2.2.5.	Ordutegia.....	29
2.2.6.	Lurralde Historikoa	30
2.2.7.	Barneko/kanpoko eremua.....	31
2.2.8.	Eremuaren edukiera	32
2.2.9.	Dantza-generoa	33
2.2.10.	Publiko mota	34
2.2.11.	Koreografiaren jatorria	35
2.3.	Zuzendaritza artistikoaren azterketa	36
2.3.1.	Dantza-emanaldien zuzendaritza.....	37
2.3.2.	Zuzendaritzaren osaera	38
2.3.3.	Prezioa eta doakotasun-datuak.....	39
2.3.4.	Asteko eguna	41
2.3.5.	Ordutegia.....	42
2.3.6.	Lurralde Historikoa	43
2.3.7.	Barneko/kanpoko eremua.....	44
2.3.8.	Eremuaren edukiera	45
2.3.9.	Dantza-generoa	46
2.3.10.	Publiko mota	47
2.3.11.	Zuzendaritzaren jatorria.....	48
3.	Sorkuntzaren azterketa.....	49
3.1.	Interpretazioaren azterketa	50

3.1.1.	Interpretariak	51
3.1.2.	Dantza-taldeen osaera	52
3.2.	Koreografiaren azterketa	53
3.2.1.	Koreografiak.....	54
3.2.2.	Koreografiaren osaera	55
3.3.	Zuzendaritza artistikoaren azterketa	56
3.3.1.	Zuzendaritza artistikoa	57
3.3.2.	Zuzendaritza artistikoaren osaera	58

Aurkezpena

2024an EAEko dantzaren programazioan eta sorkuntzan emakumek eta gizonek izan duten presentziaren eta parte-hartzearen azterketa

Ondoren emango ditugun datuek EAEko dantzaren esparruaren errealitatea erakusten dute, emakumek eta gizonek bertan duten presentzia eta parte-hartzea kontuan hartuta.

Azterlana bi ataletan banatu da: alde batetik, **dantza-emanaldiak** eta, bestetik, **dantza-obren sorkuntza**.

1. Metodologia

Unibertsoa, erabilitako laginak, ikuspegia eta glosarioa

UNIBERTSOA ETA LAGINA

Azterlan honetarako erabilitako informazio-iturria www.kulturklik.euskadi.eus plataforma izan da. Zehazki, EAEn 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte egindako dantza-jarduerak eta urte horretan bertan EAEn finkatutako taldeek estreinatu dituzten eta web-plataforma horretan dauden **dantza-obrak** aztertu dira.

	UNIBERTSOA	LAGINA
DANTZA-EMANALDIAK	653 (*)	257 emanaldi (% 95 KM $\pm$ % 4,76 EM)
DANTZA-SORKUNTZAK	40 (*)	Unibertso osoa: 40 obra

Azterketa egiteko, lagin bat erabili da dantza-emanaldietarako (laginaren konfiantza-maila % 95ekoa izan da, eta errore-marjina, berriz, $\pm$ % 4,76koa), eta unibertso osoa EAEn finkatutako taldeen dantza-obren sorkuntzarako. Dantza-jardueren kasuan, hilabeteka geruzatutako ausazko lagin sinple bat erabili da.

(*) Dantza tradizionaleko eskolak eta taldeak azterketatik kanpo utzi dira, oso zaila baita emanaldi bakoitzean parte hartu duten pertsonen sexua ezagutzea. Lan hori egiteko, entitate horiei buruzko ikerketa monografiko bat egin beharko litzateke.

ARGIBIDE METODOLOGIKOAK ETA GLOSARIOA

LAGINAREN TAMAINA (N): azterketa-aldagai jakin batzuei buruzko informazioa ez dago eskuragarri lagin osoan, eta, beraz, N balioa desberdina da azterketan zehar.

TALDEAK: kontzeptuaren barruan, dantza-jardueran parte hartzen duten pertsona guztiak sartzen dira, banakakoak zein taldekoak izan. Hori da azterlanaren segmentazioaren aldagai nagusia, eta honako kategoria hauekin osatuta dago: emakumeak bakarrik, gizonak bakarrik eta mistoak.

INTERPRETARIAK: dantza-emanaldian diharduten pertsonen zerrenda da.

KOREOGRAFIA: oholtzaratutako obren koreografiez arduratutako pertsona edo pertsonen taldea da.

ZUZENDARITZA: dantza-obraren edo dantza-emanaldiaren eszenaratzea zuzentzen duen pertsona edo pertsonen taldea da.

PREZIOA: batez besteko prezioa eta prezioaren mediana kalkulatzeko, ordainpeko jarduerak baino ez dira kontuan hartu, hau da, doako emanaldiak kanpo utzi dira.

ASTEKO EGUNA: astean zehar, astelehenetik ostegunera bitarteko egunak hartu dira kontuan, eta asteburuaren barruan, berriz, ostirala, larunbata eta igandea.

ORDUTEGIA: goizeko dantza-emanaldien barruan, 8:00etatik 15:00etara bitartekoak hartu dira kontuan, arratsaldekoen barruan 15:01etik 20:59ra bitartekoak, eta gauekoen barruan, berriz, 21:00etatik aurrerakoak.



2. Programazioaren azterketa

Atal honetan, 2024an EAEn programatutako dantza-emanaldiak aztertzen dira.

2. Programazioaren azterketa

2.1. Interpretazioaren azterketa

2.2. Koreografiaren azterketa

2.3. Zuzendaritza artistikoaren azterketa

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa

2.1.1. Interpretariak

2.1.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 1614*)

% 47,4

EMAKUMEAK

% 52,6

GIZONAK

Dantzaren esparruan, emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa da EAEko agertokietan, 5 puntutik gorako aldearekin.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa

2.1.2. Dantza-taldeen osaera


2.1.2.1. Dantza-taldeen osaera
(N 257)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



2.1.2.2. Dantza-talde mistoen osaera
(N 169)

■ Gizonak ■ Emakumeak



2024an EAEn aritu diren hiru dantza-taldetik bi (% 66) mistoak izan dira, eta gizonak emakumeak baino gehiago izan dira talde horien osaeran.


Emakumeek bakarrik osatutako taldeak % 18 izan dira, eta gizonek bakarrik osatutakoak, berriz, % 16.

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa


2.1.3. Prezioa eta doakotasun-datuak

2.1.3.1. Batez besteko prezioa eta mediana

2.3.1.1. Dantza-emanaldien batez besteko prezioa, taldearen osaeraren arabera (N 143)



2.3.1.2. Dantza-emanaldien prezioaren mediana, taldearen osaeraren arabera (N 143)




Emakumeen taldeen dantza-emanaldietarako sarrerak gizonak bakarrik aritzen diren dantza-emanaldietarako sarrerak baino 2-3 euro merkeagoak dira.

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa

2.1.3.2. Doako emanaldiak

2.1.3.3.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 250)


■ Doako emanaldiak ■ Ordainpeko emanaldiak



Emakumeek bakarrik egindako **doako emanaldien** ehunekoa gizonak bakarrik egindakoen ehunekoa baino **7 puntu** handiagoa da.

2.1.3.3.2. Banaketa, doakotasunaren arabera (N 250)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik




Ordainpeko emanaldi gehienak **talde mistoek** eskainitakoak dira.




2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa

2.1.4. Asteko eguna

2.1.4.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 257)



2.1.4.2 Banaketa, asteko egunaren arabera (N 257)




Talde mistoak, emakumez bakarrik osatutakoak eta gizonez bakarrik osatutakoak **asteburuan aritzen dira nagusiki.**

Emakumeek eta gizonek dantza-emanaldietan duten **parte-hartzea proportzionala da** asteko egunaren arabera, banaketa orokorrarekin alderatuta.

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa


2.1.5. Ordutegia

2.1.5.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 255)



Dantza-emanaldien ordu-banaketa **antzeko samarra** da talde mistoetan, gizonen taldeetan eta emakumeen taldeetan, eta ia emanaldi guztiak arratsaldez izaten dira. **Gizonek bakarrik** osatutako taldeen emanaldien % 12 **goizez eskaintzen dira, hots, emakumeek eskainitakoak baino ia 4 puntu gehiago.**

2.1.5.2. Banaketa, ordutegiaren arabera (N 255)




Talde mistoen presentzia **nagusi da 21:00etatik aurrera hasten diren dantza-emanaldietan.** Eta banaketa orokorrarekin alderatuta, **gaueko ordu horietan emakumeek bakarrik osatutako taldeek duten presentzia txikia** nabarmentzen da, **% 8koa** hain zuzen ere (guztizko presentzia % 18koa da).

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa


2.1.6. Lurralde Historikoa

2.1.6.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 257)



Emakumeak zein gizonak **Bizkaian** aritzen dira **batez ere**, eta, ondoren, Gipuzkoan eta Araban.

2.1.6.2. Banaketa, lurralde historikoaren arabera (N 257)




Emakumeen eta gizonen presentzia proportzionala da. Hala ere, **generoaren ikuspegitik, emakumeen presentzia handiagoa da Araban**, batez bestekoa baino ia 8 puntu handiagoa. Gipuzkoan, berriz, 4 puntu txikiagoa da.

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa


2.1.7. Barneko/kanpoko eremua

2.1.7.1. Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 249)



Barne-eremua da dantzarako espazio klasikoa. **Gizonek bakarrik** osatutako taldeak dira **estalpean gehien aritzen direnak**, eta **emakumeek bakarrik osatutakoak**, berriz, **kanpoan gehien aritzen direnak** (8 puntu gehiago).

2.1.7.2. Banaketa, eremu motaren arabera (N 249)




Eremuen araberako azterketari dagokionez, emakumeen eta gizonen presentzia proportzional samarra da. Dena dela, **kanpoan** eskaintzen diren emanaldien banaketan, **emakumeen taldeek presentzia handiagoa dute banaketa orokorrarekin alderatuta**.

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa


2.1.8. Eremuaren edukiera

2.1.8.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 184)



Talde mistoak eremu handietan aritu ohi dira nagusiki. Sexuaren araberako azterketari dagokionez, **emakumeez bakarrik osatutako taldeak gizonez bakarrik osatutakoak baino neurri handiagoan aritzen dira 500 plazako edo gehiagoko eremuetan, ia 13 puntuko aldearekin.**

2.1.8.2. Banaketa, eremuaren edukieraren arabera (N 184)



Banaketa orokorrarekin alderatuta, **500 pertsonatik gorako eremu handietan talde mistoen emanaldiak gehiago izan dira.**

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa


2.1.9. Dantza-generoa

2.1.9.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 257)

	Mistoa	Gizonak bakarrik	Emakumeak bakarrik
Garaikidea	% 92,30	% 85,36	% 87,23
Ballet klasikoa	% 4,14	0	0
Tradizionala	% 1,18	% 9,75	0
Bestelakoa	% 2,36	% 4,87	% 12,76

Talde mistoak (% 66), gizonen bakarrik osatutakoak (% 16) eta emakumeen bakarrik osatutakoak (% 18) dantza garaikidean aritzen dira nagusiki. Gizonen emanaldiak emakumeenak baino genero mota gehiagotan banatuta daude, hala nola dantza tradizionalan.

2.1.9.2. Banaketa, dantza-generoaren arabera (N 257)




Talde mistoak genero guztietan aritzen dira, baina banaketa desberdina da sexuaren arabera. Ballet klasikoa, ez dago emakumeen bakarrik edo gizonen bakarrik osatutako talderik, eta dantza tradizionalan, berriz, talde mistoak edo gizonen taldeak baino ez daude.

2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa


2.1.10. Publiko mota

2.1.10.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 257)



Talde mota guztiak **helduentzat aritu dira nagusiki**. Hala ere, gehien aritu direnak gizonez bakarrik osatutakoak dira. **Haurrentzako emanaldiei** dagokienez, **emakumez bakarrik osatutako taldeen emanaldiak** gizonez bakarrik osatutako taldeen ia **bikoitzak** izan dira.

2.1.10.2. Banaketa, publiko motaren arabera (N 257)




Haurrentzako emanaldietan talde mistoak aritu dira nagusiki, eta **emakumeen taldeak** gizonen taldeen **bikoitzak** izan dira.


2.1. Programazioaren azterketa: Interpretazioa

2.1.11. Dantza-interpretazioaren jatorria

2.1.11.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 257)



2.1.11.2 Banaketa, jatorriaren arabera (N 257)



Dantza-taldeetako kideen sexuaren banaketan, alde esanguratsuak daude taldearen jatorriaren arabera: **talde mistoak eta emakumez bakarrik osatutakoak EAEn sortuak dira nagusiki**; gizonz bakarrik osatutako taldeen jatorriak, berriz, askotarikoagoak dira, eta Estatuaren gainerako lurraldeetako eta atzerriko profesionalen kopurua handiagoa da.

2. Programazioaren azterketa

2.1. Interpretazioaren azterketa

2.2. Koreografiaren azterketa

2.3. Zuzendaritza artistikoaren azterketa

2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia

2.2.1. Koreografia

2.2.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 416*)

% 47,6

EMAKUMEAK

% 52,4

GIZONAK

EAEn eskainitako dantza-emanaldien koreografo gehienak gizonak dira, eta portzentajezko 5 puntuko aldea dago emakume koreografoekin alderatuta.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia

2.2.2. Koreografiaren osaera

2.2.2.1. Koreografiaren osaera (N 245)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



Gizonek bakarrik sortutako koreografiak dituzten dantza-emanaldien kopurua eta emakumeek bakarrik sortutakoak dituzten dantza-emanaldiena orekatu samar daude (% 39-37).


2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia

2.2.3. Prezioa eta doakotasun-datuak

2.2.3.1. Batez besteko prezioa eta mediana

2.2.3.1.1. Dantza-emanaldien batez besteko prezioa, taldearen osaeraren arabera (N 143)


■ Mistoa ■ Gizonak ■ Emakumeak



Batez besteko prezioa

2.2.3.1.2. Dantza-emanaldien prezioaren mediana (N 143)

■ Mistoa ■ Gizonak ■ Emakumeak



Batez besteko prezioa


Hamar emanalditik sei ordainpekoak dira. **Emakumeek sortutako** koreografia duten dantza-emanaldietarako sarrerak gizonen koreografia duten obretarako sarrerak baino 4-5 euro merkeagoak dira. Azken obra horiek dira garestienak, baita egile mistoenak baino garestiagoak ere.



2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia


2.2.3.2. Doako emanaldiak

2.2.3.3.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 239)



Doako emanaldien ehunekoa (% 40) oso antzekoa da, koreografoen sexuaren arabera edozein izanik ere.

2.2.3.3.2. Banaketa, doakotasunaren arabera (N 239)




Banaketa orokorra ia berdina da koreografiaren azterketan, doakotasuna eta koreografoen sexua kontuan hartuta.

2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia


2.2.4. Asteko eguna

2.2.4.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 245)



Dantza-emanaldi gehienak **asteburuan** eskaintzen dira, koreografoaren sexua edozein izanik ere.

2.2.4.2. Banaketa, asteko egunaren arabera (N 245)




Azpitarratu beharra dago koreografia mistoko emanaldien kopurua handiagoa dela asteburuetan asteazken baino. **Emakume koreografoek** sortutako dantza-emanaldiak, berriz, **gehiago dira asteazken**, haien banaketa orokorrarekin alderatuta.

2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia


2.2.5. Ordutegia

2.2.5.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 245)



Dantza-emanaldien ordu-banaketa **antzeko samarra da koreografia mistoetan, emakumeek sortutakoetan eta gizonek sortutakoetan**, eta arratsaldez eskaintzen dira nagusiki (emakumeenak batez ere).

2.2.5.2. Banaketa, ordutegiaren arabera (N 245)




Azpitarratu beharra dago **gaez** eskaintzen diren dantza-emanaldi **gehienek (% 50ek) gizonek sortutako koreografiak** dituztela.


2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia

2.2.6. Lurralde Historikoa

2.2.6.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 245)



2.2.6.2. Banaketa, lurralde historikoaren arabera (N 245)




Dantza-emanaldietan emakume koreografoen parte-hartzerik handiena duen lurraldea Bizkaia da. Araba, berriz, emakume batek edo batzuek sortutako koreografia duten dantza-emanaldien ehunekorik txikieneko lurralde historikoa da, baita gizonek bakarrik sortutako koreografia duten emanaldi gehien eskaintzen dituen lurraldea ere.

2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia


2.2.7. Barneko/kanpoko eremua

2.2.7.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 240)



Barne-eremua da dantzarako espazio klasikoa. Kanpoko eremuan, koreografia mistoko emanaldiak dira nagusi, aldeak handiak ez badira ere.

2.2.7.2. Banaketa, eremu motaren arabera (N 240)




Emakumeak bakarrik sortutako koreografia duten dantza-emanaldiak **ugariagoak dira barneko eremuetan** kanpoko eremuetan baino.

2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia


2.2.8. Eremuaren edukiera

2.2.8.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 240)



Taldearen osaeraren araberako banaketa orekatu samar dago. Eremu handietan, gizonek bakarrik sortutako koreografien ehunekoa emakumeek bakarrik sortutakoena baino 4 puntu handiagoa da.

2.2.8.2. Banaketa, eremuaren tamainaren arabera (N 240)



Eremu handietan eskaintzen diren dantza-emanaldien % 42 gizonek bakarrik sortutako koreografia duten obrak dira, eta ehuneko hori banaketa orokorrean dutena baino handiagoa da.

2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia


2.2.9. Dantza-generoa

2.2.9.1. Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 245)

	Mistoa	Gizonak bakarrik	Emakumeak bakarrik
Garaikidea	% 93,22	% 84,61	% 92,63
Ballet klasikoa	% 1,69	% 6,59	0
Tradizionala	% 3,38	% 4,39	0
Bestelakoa	% 1,69	% 4,39	% 7,36

Dantza **garaikidea** da generorik ohikoena EAEko programazioan, eta emakume koreografoen presentzia da nagusi genero horretan.

2.2.9.2. Banaketa, dantza-generoaren arabera (N 245)



Ikus daitekeenez, koreografoen sexuaren **banaketa oso desberdina** da dantza-generoen artean.


Emakumeek bakarrik sortutako koreografiak nagusi dira dantza garaikidean edo “bestelakoan”.



2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia


2.2.10. Publiko mota

2.2.10.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 245)



Dantza-emanaldiak helduei zuzenduta daude nagusiki.

2.2.10.2. Banaketa, publiko motaren arabera (N 245)




Haurrei zuzendutako emanaldien kasuan, koreografia gehienak (% 55) emakumeek bakarrik sortutakoak dira.

2.2. Programazioaren azterketa: Koreografia


2.2.11. Koreografiaren jatorria

2.2.11.1 Banaketa, taldearen osaeraren arabera (N 245)



Emakumeek osorik edo zati batean sortutako koreografiak dituzten obren kasuan, emakume gehienak EAEkoak dira, eta gizonen jatorriak, berriz, askotarikoagoak dira (% 60 Euskaditik kanpokoak).

2.2.11.2. Banaketa, jatorriaren arabera (N 245)



Emakume eta gizon koreografoen jatorriaren azterketari dagokionez, gizonen presentzia handiagoa da Estatuko gainerako lurraldeetako eta atzerriko koreografietan.

2. Programazioaren azterketa

2.1. Interpretazioaren azterketa

2.2. Koreografiaren azterketa

2.3. Zuzendaritza artistikoaren azterketa

2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa

2.3.1. Dantza-emanaldien zuzendaritza

2.3.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 378*)

% 47,9

EMAKUMEAK

% 52,1

GIZONAK

EAEn eskainitako dantza-emanaldien zuzendari gehienak gizonak dira, eta portzentajezko 4 puntuko aldea dago emakume zuzendariekin alderatuta.


Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa

2.3.2. Zuzendaritzaren osaera

2.3.2.1. Zuzendaritzaren osaera (N 245)

■ Mistoia ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



Emakumeez bakarrik osatutako zuzendaritza artistikoak eta gizonez bakarrik osatutakoak **orekatu samar daude (% 40-41).**


2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa

2.3.3. Prezioa eta doakotasun-datuak

2.3.3.1. Batez besteko prezioa eta mediana

2.3.3.1.1. Dantza-emanaldien batez besteko prezioa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 143)


■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



Emanaldien % 60 ordainpekoak izan dira. Gizonek bakarrik zuzendutako dantza-emanaldien prezioaren eta emakumeek bakarrik zuzendutakoen prezioaren arteko aldea handi samarra da; **gizonek bakarrik zuzendutako emanaldiak 4 euro garestiagoak izan dira.**

2.3.3.1.2. Dantza-emanaldien prezioaren mediana, taldearen osaeraren arabera (N 143)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik




Medianak **batez bestekoarekiko antzeko aldea (3,50 eurokoa)** erakusten digu gizonek zuzendutako obretan (garestienetan) eta emakumeek zuzendutako obretan.

2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa


2.3.3.2. Doako emanaldiak

2.3.3.3.1 Banaketa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 239)



Zuzendaritza mistoek doako emanaldien ehuneko handiagoa dute sexu bateko edo besteko pertsonen bakarrik osatutakoekin baino.

2.3.3.3.2. Banaketa, doakotasunaren arabera (N 239)




Ordainpeko/doako emanaldien banaketa proportzional samarra da emakume zuzendarien presentziaren banaketa orokorrenekiko (% 41); nolahi ere, emakumeen presentzia pixka bat handiagoa da ordainpeko emanaldietan.


2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa

2.3.4. Asteko eguna

2.3.4.1. Banaketa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 245)



2.3.4.2. Banaketa, asteko egunaren arabera (N 245)



Dantza-emanaldiak asteburuan eskaintzen dira nagusiki, zuzendarien sexua edozein izanik ere. Hala ere, zuzendaritza mistokoak neurri handiagoan eskaintzen dira asteburuan.


Astean zehar gehien eskaintzen diren dantza-emanaldiak emakumeek bakarrik zuzendutakoak dira.



2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa


2.3.5. Ordutegia

2.3.5.1. Banaketa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 245)



Dantza-emanaldi gehienak **arratsaldez** eskaintzen dira, batez ere **emakumeek bakarrik** zuzendutakoen kasuan (10etik 9).

2.3.5.2. Banaketa, ordutegiaren arabera (N 245)




Goizez eta, bereziki, **gauez** nabarmentzen dira gizonek bakarrik zuzendutako emanaldiak.

2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa


2.3.6. Lurralde Historikoa

2.3.6.1. Banaketa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 245)



Gizonez bakarrik edo emakumez bakarrik osatutako zuzendaritza gehienak **Bizkaikoak** dira, eta **zuzendaritza artistiko misto** gehienak, berriz, **Gipuzkoakoak**.

2.3.6.2. Banaketa, lurralde historikoaren arabera (N 245)




Emakumeek Bizkaian programatutako dantza-emanaldien ia **erdiak zuzentzen dituzte**, banaketa orokorraren arabera dagokiena baino askoz neurri handiagoan. Gainera, adierazi beharra dago gizonek presentzia handiagoa dutela Araban.

2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa


2.3.7. Barneko/kanpoko eremua

2.3.7.1. Banaketa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 240)



Barne-eremua da dantzarako espazio klasikoa, batez ere emakumez bakarrik osatutako zuzendaritzen kasuan. Zuzendaritza mistoak dira presentzia handiagoa dutenak kanpo-eremuan.

2.3.7.2. Banaketa, eremu motaren arabera (N 240)




Barne-eremuetan eskaintzen diren emanaldien zuzendaritzen banaketa **proportzional samarra da** zuzendarien sexuaren araberako **banaketa orokorrarekiko**. **Kanpo-eremuetan**, aldiz, **zuzendaritza mistoko** obrak gehiago dira, eta emakumez bakarrik osatutako zuzendaritzen presentzia nabarmen txikiagoa da.

2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa


2.3.8. Eremuaren edukiera

2.3.8.1. Banaketa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 240)



Oro har, gizonek bakarrik eta emakumeek bakarrik zuzendutako dantza-emanaldien presentzia antzekoa da 500 eserlekutik beherako eremuetan. Nolanahi ere, emakumeen kasuan txikixeagoa da.

2.3.8.2. Banaketa, eremuaren tamainaren arabera (N 240)



500 eserlekutik gorako edukiera duten eremuetan, eskainitako dantza-emanaldien % 45 gizonek bakarrik zuzendutakoak dira.

2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa


2.3.9. Dantza-generoa

2.3.9.1 Banaketa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 245)

	Mistoa	Gizonak bakarrik	Emakumeak bakarrik
Garaikidea	% 95,55	% 84,84	% 92,07
Ballet klasikoa	0	% 6,06	% 0,99
Tradizionala	% 4,44	% 4,04	0
Bestelakoa	0	% 5,05	% 6,93

Dantza garaikidea da generorik ohikoena EAEko programazioan.

2.3.9.2. Banaketa, dantza-generoaren arabera (N 245)




Emakumeek dantza garaikideko obrak zuzendu dituzte nagusiki; gizonek, berriz, presentzia handiagoa izan dute ballet klasikoan edo dantza tradizionalan. Azken horretan, zuzendaritza mistoen presentzia ere handiagoa izan da.

2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa


2.3.10. Publiko mota

2.3.10.1. Banaketa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 245)



Dantza-obrak helduei zuzenduta daude nagusiki, obraren zuzendaritzaz arduratutako pertsonaren edo pertsonen sexua edozein izanik ere. Nolanahi ere, adierazi beharra dago emakumeek zuzendu dituztela batez ere hurrei zuzendutako obrak (% 12).

2.3.10.2. Banaketa, publiko motaren arabera (N 245)




Hurrei zuzendutako emanaldien zuzendaritzak emakumez bakarrik osatutakoak dira nagusiki.

2.3. Programazioaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa


2.3.11. Zuzendaritzaren jatorria

2.3.11.1 Banaketa, zuzendaritzaren osaeraren arabera (N 244)



Emakumeek osorik edo zati batean osatutako zuzendaritza duten obren kasuan, emakume gehienak EAEkoak dira, eta gizon zuzendarien jatorriak, berriz, askotarikoagoak dira (% 61 Euskaditik kanpokoak).

2.3.11.2. Banaketa, jatorriaren arabera (N 244)



Ikus daitekeenez, gizonen presentzia handiagoa da Estatuko gainerako lurraldeetako eta atzerriko zuzendaritzetan EAEkoetan baino, eta emakumeek zuzendutako obren kasuan alderantziz gertatzen da.

3.Sorkuntzaren azterketa

Atal honetan, 2024an EAEn finkatutako taldeek estreinatutako dantza-obrak aztertzen dira.

3. Sorkuntzaren azterketa

3.1. Interpretazioaren azterketa

3.2. Koreografiaren azterketa

3.3. Zuzendaritza artistikoaren azterketa

3.1. Sorkuntzaren azterketa: Interpretazioa

3.1.1. Interpretariak

3.1.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 175*)

% 59,4

EMAKUMEA

% 40,6

GIZONAK

Emakumeek gizonak baino presentzia handiagoa izan dute interpretari gisa EAEn finkatutako entitateek 2024an sortutako dantza-obretan.

* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua




3.1. Sorkuntzaren azterketa: Interpretazioa

3.1.2. Dantza-taldeen osaera


3.1.2.1. Dantza-taldeen osaera
(N 40)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



3.1.2.2. Dantza-talde mistoen osaera (N 24)

■ Gizonak ■ Emakumeak



Talde mota nagusiak talde mistoak dira (% 60). Emakumez bakarrik osatutako taldeak gizonez bakarrik osatutakoak baino gehiago dira (10 puntu gehiago). Era berean, talde mistoen barruan, emakumeen presentzia ia bikoitza da (%64 emakumeak, eta % 36 gizonak).

3. Sorkuntzaren azterketa

3.1. Interpretazioaren azterketa

3.2. Koreografiaren azterketa

3.3. Zuzendaritza artistikoaren azterketa

3.2. Sorkuntzaren azterketa: Koreografia

3.2.1. Koreografiak

3.2.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 61*)

% 52,5

EMAKUMEAK

% 47,5

GIZONAK

2024an EAEn sortutako dantza-obren koreografietan, emakumeen presentzia gizonena baino 5 puntu handiagoa izan da.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

3.2. Sorkuntzaren azterketa: Koreografia

3.2.2. Koreografiaren osaera

3.2.2. Koreografiaren osaera
(N 40)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



EAEn sortutako dantza-obren ia erdiek (% 48k) emakumeek bakarrik sortutako koreografia izan dute (% 35 izan dira gizonek sortutakoen kasuan).

3. Sorkuntzaren azterketa

3.1. Interpretazioaren azterketa

3.2. Koreografiaren azterketa

3.3. Zuzendaritza artistikoaren azterketa

3.3. Sorkuntzaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa

3.3.1. Zuzendaritza artistikoa

3.3.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 55*)

% 56,3

EMAKUMEAK

% 43,7

GIZONAK

2024an EAEn sortutako dantza-obren zuzendaritza artistikoan, emakumeen presentzia handiagoa izan da, ia 13 puntuko aldearekin.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

3.3. Sorkuntzaren azterketa: Zuzendaritza artistikoa

3.3.2. Zuzendaritza artistikoaren osaera

3.3.2. Zuzendaritza artistikoaren osaera (N 40)

■ Mistoia ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



2024an EAEn sortutako dantza-obretan, gizonez **bakarrik osatutako zuzendaritza artistikoak** emakumeez bakarrik osatutakoak baino **nabarmen gutxiago** izan dira (% 38-53).